

LEHEN AUKERA 2021 PROGRAMAREN LABURPENA ETA LAN-ESKAINTZAK KUDEATZEKO ETA/EDO TRANTSIZIO- PROZESUAREN KUDEAKETA ETA JARRAIPENA EGITEKO JARRAIBIDEAK

DOKUMENTU HONEN HARTZAILEAK DIREN ERAKUNDEAK

- **ESKAINNTZA KUDEATZEKO AKREDITATUTA DAUDEN ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK (2015eko urtarrilaren 23ko Ebazpena - 2015-2-2ko EHAA).**
- **ESKAINNTZA BILDU ETA ERREGISTRATZEKO BAIMENDUTA DAUDEN ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK.**
- **HEZKUNTZA-MUNDUTIK LAN-MUNDURAKO TRANTSIZIO-PROZESUA KUDEATZEKO ETA PROZESU HORREN JARRAIPENA EGITEKO BAIMENDUTA DAUDEN ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK.**

INFORMAZIOA ETA JARRAIBIDEAK

ARAUDIA

EBAZPENA, 2021EKO APIRILAREN 22KOA, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, gazte langabe tituludunak euskal enpresetan praktikaldiko kontratuen edo kontratu mugagabeen bidez kontratatzekeko diru-laguntzen deialdiari buruzkoa. **LEHEN AUKERA PROGRAMA** (*informazio osoa Lanbideren web-orrian ikus daiteke: www.lanbide.euskadi.eus helbidean, Laguntzak eta Diru-laguntzak estekan eta gero Enplegu diru-laguntzak eta Lehen Aukera*).

DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUKETAK

A. KONTRATU MUGAGABEAK EDO PRAKTIKALDIKOAK

Diruz lagun daitezkeen kontratuen **baldintza orokorrak**:

- EAEn dauden lan-zentroetako lanpostuetan jarduteko lan-kontratu mugagabeak edo gutxienez 6 hilabeteko iraupena duten praktikaldiko kontratuak izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabe gazteei eginak izatea.
- Deialdia EHAAr argitaratu eta hurrengo egunetik hasia eta **2021eko urriaren 29ra arte**.
- Lanaldi osokoak edo partzialekoak izatea (inoiz ez ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoak).
- Lanpostuak kontratatutako pertsonaren ikasketa- edo prestakuntza-mailari egokituta egotea.
- Idatziz formalizatzea eta datu hauek adieraztea: titulazioa, hasiera- eta bukaera-data, iraupena, lanaldia eta lanpostua. Kontratuek, gainera, Lehen Aukera programa aipatu behar dute, eta, hala badagokio, baita kontratua zer eskaintzatik eratorritakoa den ere.

- **Enplegu-sorrera garbia** ekarri behar dute berekin, kontratatutako langilea edo langileak Euskal Autonomia Erkidegoko lan-zentroan edo lan-zentroetan lanean hasi aurreko 6 hilabeteetan enpresak batez beste duen langile kopuruarekiko. Kontratazioaren datan, kontratu berriak aipatutako batez bestekoarekiko hazkundea ekarri behar du (*baldintza hori ez da kontuan hartuko kontratuak arrazoi hauengatik azkentzen badira: bidezko diziplinazko kaleratzea, dimisioa, desgaitasuna, adinagatik erretiroa hartzea, lan-denbora borondatez murriztea, edo langileen ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia*).
- Senidetasunik eza 3.4a) artikuluaaren arabera.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako edozein deialditako dirulaguntzen helburu diren edo deialdi horien esparruan diruz lagunduta dauden jardueri lotu gabeak izatea.
- Urteko ordainsari garbia kontratuan adieraziko da, eta titulazio akademikoaren arabekoa izan beharko du

Titulazio akademikoa	Urteko gutxieneko ordainsari gordina
	(aparteko ordainsariak barne)
Lizentzia, ingeniari-tza, arkitektura edo masterra (Bologna plana), Unibertsitate-diploma, ingeniari-tza teknikoa, arkitektura teknikoa eta Bologna Planeko unibertsitate-gradua	21.200,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	18.200,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), Oinarrizko Lanbide Heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	14.000,00 €

Edonola ere, kontratazioek bat etorri beharko dute Langileen Estatutuko eta aplikatu daitezkeen gainerako araudiko aurreikuspenekin.

Praktikaldiko kontratuaren iraupena:

- Gutxienez **6 hileko** iraupena (2 luzapen adostu daitezke gehienez ere, gutxienez sei hilabeteak, 2 urte osatu arte). Luzapen horiengatik **ez da dirulaguntzarik emango**.

B. LAN-ESKAINTZAK BILDU, ERREGISTRATU ETA/EDO KUDEATZEA ETA/EDO TRANTSIZIO-PROZESUA KUDEATZEA ETA HAREN JARRAIPENA EGITEA

Erakunde laguntzaileei diru-laguntzak emango zaizkie lan-eskaintzak bildu, erregistratu eta kudeatzeagatik eta hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioaren prozesua kudeatu eta prozesu horren jarraipena egiteagatik, betiere deialdiaren 13. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. puntuetan ezarrita dagoen bezala egiten badute hori dena eta azkenean deialdi honen babesean diruz lagun daitezkeen praktikaldiko kontratuak edo kontratu mugagabeak formalizatzen badira.

ENPRESA ETA ERAKUNDE ONURADUNAK

A. ENPRESA PRIBATUAK

17. artikuluan aurreikusten diren baldintza orokorrak eta ondorengo **betekizunak** betetzen dituzten banakako enpresaburuak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak, elkarteak eta fundazioak, edozein dela ere haien forma juridikoa:

- Egoitza soziala eta fiskala EAEn izatea edo lantokia EAEn egotea.
- Administrazio publiko batek edo gehiagok % 50eko edo gehiagoko partaidetza zuzena edo zeharkakoa ez izatea.
- Enpresako langileen legezko ordezkaritzari jakinarazi izana deialdi honen babesean kontratatzeke asmoa dagoela. Enpresak eskaeran berariaz adierazi beharko du langileen legezko ordezkaritzarik baduen ala ez.
- Europar Batasuneko Kontseiluak diru-laguntza bat ilegal eta merkatu erkidearekin bateraezin gisa deklaratu duen aurretiazko erabaki baten ondoren, ez egotea berreskuratze-agindu baten zain.

Honako hauek **ez dira** erakunde onuradun izango:

- Erakunde autonomoak.
- Sozietate publikoak.
- Administrazio publiko baten menpeko elkarte edo erakundeak.
- Langileak lagatzeko enpleguetarako aldi baterako laneko enpresak.
- Lehen Aukera deialdi honen babesean **kontratatzeke diru-laguntza eskatzeko epea** deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasia eta **2021eko urriaren 29ra arte**.

➤ 2019ko urriaren 31n bukatuko. II. ERANSKINA

A. ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Lan-eskaintzak bildu, erregistratu eta kudeatzeko erakunde laguntzaileak:

- 12.1 artikulua.** Bitartekaritza-zerbitzua eskaintzerakoan jarduera hauek burutzeko baimena dutenak, 2015eko urtarrilaren 23ko Ebazpenaren arabera (2015-02-02ko EHAA). Ez dago eskabidea egiteko eperik, eta erakunde laguntzaile izateko baimenaren indarraldia urtebetekoa izango da, luzatzeko aukerarekin.
- 12.2. artikulua.** Erakunde hauek izendatu ahal izango dira erakunde laguntzaile, deialdi honi berariaz lotutako lan-eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko, betiere egoitza EAEn badute:
 - Unibertsitateak.
 - Lanbide Heziketako ikastetxe publikoak eta itunpeko pribatuak.
 - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde kolaboratzaileak, 2018-2020ko deialdiko lanerako prestakuntza emateko diru-laguntzen eta 2019-2021eko deialdiko lanerako orientazioa emateko diru-laguntzen onuradun badira.
 - Udalak, mankomunitateak, kuadrillak, tokiko garapenerako agentziak eta Behargintzako zentroak.

Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizio-prozesua kudeatzeko eta prozesu horren jarraipena egiteko erakunde laguntzaileak:

- 12.3 artikulua.- 13.5 artikuluan definitutako trantsizio-prozesuaren kudeaketa- eta jarraipen-jarduerak egiteko erakunde laguntzaile izan daitezke **unibertsitateak, Lanbide Heziketako ikastetxe publikoak eta pribatu itunduak**.

Honako hauek jotzen dira trantsizio-prozesuaren kudeaketa- eta jarraipen-jardueratzat (13.5 art.):

- Enpresak zuzenenean hautatzen dituen gazteen lan-eskaera berreskuratzea, berritzea, berrikustea eta aldatzea.
- Kontratututako gazteak kontratua sinatu aurreko egunetik hasita, gutxienez, **Gazte Bermea Sistemari** izena emanda daudela egiaztatzea.
- Enpresak zuzenean hautatzen dituen gazteek, kontratua sinatzeko unean, 5.1 artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzea eta bermatzea.
- Kontratu hori kontratatutako pertsonak egindako ikasketen edo prestakuntzaren mailari egokitutako praktika profesionala lortzeko bidea eman behar duen lanpostu baterako dela egiaztatzea.
- Prestakuntza Duala enpresan bukatu duten pertsonen kasuan, prestakuntza hori hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko bada, kontratua mugagabea dela edo **gutxienez 12 hilabeteko praktikaldiko kontratua** dela egiaztatzea.
- Kontratututako pertsona Lanbideko informazio-sisteman identifikatzea Lehen Aukera programaren bidez sustatutako kontratu bati lotutako pertsona gisa.

Erakunde Laguntzaile guztientzat:

Erakunde laguntzaile izateko eskaerak aurkezteko gehieneko epea: **2021eko uztailaren 30 artekoa izango da (I. ERANSKINA)**.

Gehienez ere 3 pertsona baimenduko dira lan-eskaintzak bildu eta erregistratzeko eta/edo trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko. Pertsona horiek, baimendu aurretik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko langileek emandako prestakuntza-ekintzan parte hartu eta hura aprobetxatuko dute, ezarritako egunetan. Egunak Lanbideren webgunean argitaratuko dira. Prestakuntza-ekintza hori **egin beharrik ez dute izango** Lehen Aukera programako aurreko urteetako laguntzen deialdietan jarduera horietarako baimendu ziren zentroetako pertsonak. Kasu horretan, Lehen Aukera programako aurreko deialdietan baimendutako pertsonen jarraipenari buruzko zinpeko aitorpena erantsiko zaio eskabideari.

Prestakuntza-ekintzak bukatutakoan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du, adierazitako baldintzak betetzen dituzten erakundeei, deialdi honetan aurreikusitako ondorioetarako, erakunde laguntzaile izaera emateko.

KONTRATATUKO DIREN GAZTEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- 16 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.

- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa izena emanda eta alta-egoeran egotea, eta kontratua hasteko bezperan langabea izatea.
- Titulazio hauetakoren bat edukitzea:
 - Lizentzia, ingeniartza, arkitektura edo masterra (Bologna plana).
 - Unibertsitateko diplomatura, ingeniartza teknikoa, arkitektura teknikoa edo unibertsitateko gradua (Bologna plana).
 - Lanbide Heziketa arautuko edo berariazko Lanbide Heziketako goi- edo erdi-mailako teknikaria. Bi titulu hauek ere aurrekoen baliokideak dira: teknikari laguntzailea (LH1) eta teknikari espezialista (LH2).
 - Oinarrizko Lanbide Heziketa
 - Ofizialki aurrekoen baliokidetzat jotzen diren beste titulazioak
 - Profesionaltasun-ziurtagiria.
- Tituluari lotutako enpleguetan gehienez 6 hilabeteko esperientzia izatea.
- Enpresak zuzenean aukeratzen dituen gazteen kasuan, **Gazte Bermea Sisteman izena emanda egotea**, kontratua hasi aurreko egunetik gutxienez.

KONTRATATUKO DIREN PERTSONAK AUKERATZEKO PROZEDURA

Programan parte hartuko duten gazteen **hautaketa** (eta kontratazioa) diru-laguntzaren eskabidea aurkeztu baino lehenago egingo da. Honela egin ahal izango da hautaketa hori:

- a) Ikasketak amaitu dituzten prestakuntza-zentroaren bidez, enpresak zuzenean, 2020-2021 ikasturtean zehar** Euskal Autonomia Erkidegoan enpresaren zentroren batean prestakuntza-aldi bat amaitu duten gazteak kontratatzeke, formula hauetakoren bat baliatuz:
- Prestakuntza Duala (hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako tituluren bat lortzeko prestakuntza baldin bada).
 - Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako tituluren bat lortu aurretik enpresan prestakuntza jasotzeko Eusko Jaurlaritzaren programaren baten babesean emandako bekak.
 - Unibertsitate-eremutik lan-eremura igarotzeko trantsizio gisa enpresan prestakuntza jasotzeko, Eusko Jaurlaritzaren programaren baten babesean emandako bekak.

Kontratatu beharreko gazteek 2020tik aurrera lortu beharko dute titulazioa.

Enpresak, kontratuak egin aurretik, kontratatuko den pertsonak ikasketak egin dituen prestakuntza-zentrori joko du, ikastetxeak egiazta dezan 5.1 eta 5.2.a) artikuluetan ezarritako baldintzak eta 13.5 artikuluan adierazitako prozesuaren kudeaketa eta jarraipenaren gainerako xehetasunak betetzen direla.

- b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez edo erakunde laguntzaileraren baten bitartez,**
a) atalean jasota ez dauden kasuetako gazteak kontratatzeke.

- Hautaketarako, eskaintza kudeatzeko eskaera bat aurkeztu beharko da bete beharreko lanpostuaren profil bakoitzeko. Eskaera hori inprimaki normalizatu baten bidez aurkeztu behar da, IV. eranskinean ezarritako ereduaren arabera, helbide honetan deskargatu ahal

dena:

https://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/solicitud_oferta/es_def/adjuntos/2021/Anexo-IV-LEHEN-AUKERA-WEB_bilingue2021.pdf, eta datu hauek adierazi beharko dira, gutxienez: izen-abizenak edo enpresaren izen soziala, IFK/IFZ, enplegatzailearen kotizazioaren kontu-kodea (halakorik bada), lantokiaren udalerria, lanpostuaren izena eta langintza, lanpostuen kopurua, lanpostuaren deskribapena eta enpresaburuaren, legezko ordezkariaren edo baimena duen pertsonaren sinadura.

- Lanbideen Sailkapena erreferentziatzat hartuta adieraziko da lanbidea. Sailkapen hori Lanbideren webgunean jarriko da (<http://www.lanbide.euskadi.eus>), deialdi hau argitaratzen den egun berean.
- Eskaintza kudeatzeko eskaera bakoitza eskaintza hori jasotzen duen bulegoak edo erakunde laguntzaileak erregistratuko du, eta enpresari jakinaraziko zaio haren erreferentzia.
- Hautagaitzak EAEn bertakoak izatea berrikustea, bai parekatze-hautagaitzetan, bai hedapen-hautagaitzetan edo esleipen nominaleko hautagaitzetan. Gutxienez, itzultzeko borondatea duen erkidegokoa (08 kolektiboa) den berrikustea, hura baztertzeko, Estatuko gainerako tokietan EAetik kanpo bizi direnak automatikoki bahetzen baitira.
- Lehentasuna emango zaie 5. artikuluko 2 b) zenbakian adierazitako eran Gazte Bermea Sistemako datu-basean inskribatuta dauden pertsonari.
- Aurreko edizioetan praktikaldiko kontratua izan dutenek, lan-kontratu mugagabearen modalitatean baino ezin izango dute parte hartu programa honetan.
- Eskaintza bat kudeatu ondoren hautagai gisa bideratu diren pertsonari egindako kontratuak baino ez dira diruz lagunduko.
- Kontratu bakoitzaren komunikazio-prozesuan, enpresak nahitaez adierazi beharko du kontratu horri dagokion eskaintzaren erreferentzia.

Erakunde Laguntzaileek KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK.

Lehen Aukera programaren berezitasunak direla-eta, bereziki zorrotza izan beharra dago kontu hauekin:

LAN-ESKAINTZEN KUDEAKETA

1. Eskaintza **Lehen Aukera 2021 programari dagokion "052"** kodearen identifikazioarekin erregistratuko da lan-bitartekaritzaren aplikazioan, eskaintzari lotutako Pizgarrien Programa atalean.
2. Hautagaiek betekizunak betetzen dituzten egiaztatuko dute Erakunde Laguntzaileek: adina, lanik gabe eta Lanbiden izena emanda egotea, titulazioarekin zerikusia duten enpleguetan gehienez 6 hilabeteko lan-eskarmentua izatea eta **titulazioa bat etortzea espresak eskatutakoarekin; hau da, enpresak eskatutako profilaren arabera izatea**. Baldintza hau betetzea ezinbestekoa da enpresari, eta hala balegokio, erakunde kudeatzaileari diru-laguntza ordaintzeko.
3. Eskaintza bildu, erregistratu eta/edo kudeatzeko eta/edo trantsizio-prozesua kudeatzeko eta jarraitzeko diru-laguntzaren eskabideak (III. eranskina) **epe barruan aurkeztea**; hau da, 2021eko azaroaren 2tik 12ra.

TRANSIZIO-PROZESUAREN KUDEAKETA ETA JARRAIPENA

1.- Trantsizio-prozesuak kudeatzeko eta jarraitzeko jarduerak arinak eta ahalik eta eraginkorrenak izateko, arlo honetako erakunde laguntzaile izan daitezela gomendatzen zaie unibertsitateei, Lanbide Heziketako ikastetxe publiko eta pribatu itunduei eta horiek biltzen dituzten elkarteei. Horretarako eskaera egiteko, <http://www.labide.euskadi.eus> Interneteko helbidean eskuragarri dagoen eredu ofiziala (l. eranskina) aurkeztu beharko dute.

2.- Trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipenerako baimena eskatzen duten Erakundeek ESKAERAREN KUDEAKETARI buruzko prestakuntza egin beharko dute, 13.5 artikuluan bildutako jarduketak behar bezala egiteko. Laneratzeko Zerbitzuak ezartzen dituen egunetan eta moduan egingo da prestakuntza hori.

3.- Erakunde laguntzaile izaera onatzeko prozesua eta eskaeraren kudeaketari buruzko prestakuntzara joango direnen kudeaketa arintzeko, komenigarria da eskaera bete eta kopia eskaneatua bidaltzea laneratze@lanbide.eus helbidera, gaian “erakundearen eskaera: Lehen Aukera 2021, trantsizio-prozesua” jarritz.

4.- Prestakuntza-ekintzak bukatutakoan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du, hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizio-prozesua kudeatzeko eta jarraitzeko erakunde laguntzaile izaera emateko.

KONTRATUA AZKENTZEA

Praktikaldiko kontratuen kasuan, kontratuen gutxieneko iraupenak eskatutakoa edo diruz lagundutakoa izan beharko du, eta kontratu mugagabeen kasuan, berriz, 24 hilabetekoa izango da gutxienez.

Kausa jakin batzuk direla-eta kontratua azkentzen bada (probaldia ez gainditzeagatik lan-kontratua azkentzen bada, kontratatutakoak lana borondatez uzten badu, bidezkoztat jotako kaleratzea gertatzen bada edo kontratatutako pertsonaren baliaezintasuna edo heriotza gertatzen bada), honela jokatu beharko da:

7 egun, kontratua azkentzen denetik	Lanbideri horren berri emateko, Lanbidek diru-laguntza doi dezan, kontratatutako pertsonak lan egindako aldiaren zati proportzionalaren arabera.
Kontratu-harremana lehen aurreikusi ez den beste kausaren batengatik azkendu bada, diru-laguntza oso-osorik itzuli beharko da, deialdi honen 23. artikuluan ezarritakoari jarraituz.	
Enpresak beste pertsona bat edo batzuk kontratatu nahi izanez gero, nahitaez eskatu beharko du berriro diru-laguntza, deialdi honetan aurreikusitako epean eta eran.	

BALIABIDE EKONOMIKOAK

KONTRATUEN FINANTZAKETA	3.846.154,00 €
ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN FINANTZAKETA	153.846,00 €
LEHEN AUKERA PROGRAMAREN FINANTZAKETA, GUZTIRA	4.000.000,00 €

DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

ENPRESAK

► Praktikaldiko kontratua edo kontratu mugagabea, titulazio akademikoaren arabera:

Praktikaldiko kontratua edo kontratu mugagabea, titulazio akademikoaren arabera	Urteko gutxieneko ordainsari gordina (aparteko ordainsariak barne)	Praktikaldiko kontratua		Kontratu mugagabea	Praktikaldiko kontratua		Kontratu mugagabea
		Dirulaguntza 6 hilabeterako	Dirulaguntza 12 hilabeterako		Emakume gutxiko dirulaguntza (6 hilabete)	Emakume gutxiko dirulaguntza (12 hilabete)	Emakume gutxiko dirulaguntza
Lizentzia, ingeniari-tza, arkitektura edo masterra (Bologna plana), Unibertsitate-diploma, ingeniari-tza tekniko, arkitektura tekniko eta Bologna Planeko unibertsitate-gradua	21.200,00 €	5.300,00 €	8.480,00 €	12.700,00 €	5.830,00 €	9.328,00 €	13.970,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	18.200,00 €	4.550,00 €	7.280,00 €	10.900,00 €	5.005,00 €	8.008,00 €	11.990,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), Oinarritzko Lanbide Heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	14.000,00 €	3.500,00 €	5.600,00 €	8.400,00 €	3.850,00 €	6.160,00 €	9.240,00 €

► Aipatutako diru-laguntzen zenbatekoak lanaldi osoko kontratuei dagozkie. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, zenbatekoak lanaldiaren arabera izango dira, ezarritako lanaldiaren %70 baino lanaldi laburragoa ez baldin bada.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

<u>DIRU-LAGUNTZA JASOTZEN DUEN KONTRATU BAKOITZEKO</u>	DIRU-LAGUNTZA	% 10EKO IGOERA DUEN DIRU-LAGUNTZA
Lan-eskaintza biltzea eta erregistratzea	120 euro	132 euro
Lan-eskaintzaren kudeaketa	80 euro	88 euro
Trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena	120 euro	--

- Erakundeak **%10 gehiago** jasoko du **arrakastaz kudeatutako 20 lan-eskaintza** bakoitzeko; hau da, deialdi honen babesean diruz lagundutako kontratuarekin bukatzen diren hogeitaz lan-eskaintza lortzen dituen aldiro.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA IZAPIDETZEA

Diru-laguntza eskatzeko epea: 2021eko azaroaren 2tik 12ra. **III.ERANSKINA**

Erakunde laguntzaileek deialdi honen babesean formalizatutako kontratu diruz lagunduei dagokien diru-laguntza jasoko dute, diru-laguntza emateko ebazpenean onartzen diren baldintzetan.

Diru-laguntza-eskabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Publikoaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu behar dira: <https://euskadi.eus>, eta hara iristeko esteka bat egongo da Lanbideren web-orrian:

Eskabidearen ondorengo izapideak egiteko (jakinarazpenak barne), Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>. Izapideak elektronikoki egiteko argibideak helbide honetan aurki daitezke: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1015910>.

Era berean, eskabidea elektronikoki izapidetu ahal izango da, ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkariak Eusko Jaurlaritzako Ordezkarien Erregistroan eman ahalko du izena, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariak>.

Deialdi honen babesean diruz lagundu daitezkeen kontratuak formalizatuta amaitu diren **lan-eskaintzak kudeatu** dituzten erakunde kolaboratzaileek, diru-laguntza-eskabiderekin batera, erregistratu eta/edo kudeatu dituzten lan-eskaintzen zerrenda bat aurkeztu beharko dute, eta, deialdi honen babesean, lan-eskaintza horietako bakoitzean kontratatutako pertsonen ere agertu beharko dute.


Trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egin duten erakunde kolaboratzaileek deialdi honen babesean kontratatutako pertsonen eta enpresa kontratatzaileen zerrenda aurkeztu beharko dute, diru-laguntza-eskabidearekin batera.

KONTRATU KOPURUA KONTSULTATZEA BITARTEKOTZA-APLIKAZIOAN

Bitartekaritza-aplikazioan egindako kontratu-kopuruaren kontsulta:

Lanbideko kudeaketa-aplikazioan (Bitartekaritzan) kontsultarako tresna bat prestatu da **lan-
eskaintzak bildu, erregistratu eta/edo kudeatzeko erakunde laguntzaileentzat**, III.
eranskineko 3. puntua betetzen laguntzeko: "Eskatutako zenbatekoa honi erantsitako
zerrendaren arabera".

Kontsulta horretara aplikaziotik iristen da, honela:
KONTSULTAK/ESKAINZA/KONTRATAZIODUN ESKAINTZEN ZERRENDA



Listado de Ofertas con Contrataciones

Centro de gestión: 00010010
Centro de registro: 00010010
Tipo Oferta: ☒ Con programa de incentivos
Tipo Canal: ☒ Enviados
Fecha reg. Desde: Hasta:

Nº Oferta	Nombre puesto	Razón social	Ubicación	Nº vacantes res.	Nº contrataciones registro
162014008964	MODELADOR/A 3D	DEBULTOON STUDIO SL	IRUJ (GIPUZKOA), ESPAÑA	8	1

Rdcs: 1 a 1 de 1 encontrados.

Kontsulta **erregistro-zentro** batek egiten badu, aukera hauek markatu beharko ditu:

- Erregistro-zentroa.
- Eskaintza-mota: Lehen Aukera 2020 pizgarri-programarekin
- Hautagaitza-mota: Bidalitakoak
- Eta lupan "bilatu" sakatu behar da 

Horrela, zentro laguntzaile horrek erregistratutako kontratatuen kopurua lortzen da, eta kopuru hori **120** zenbakiaz biderkatu beharko da, eta emaitza III. eranskineko 3. puntuan jarri.

Kontsulta **kudeaketa-zentro** batek egiten badu, aukera hauek markatu beharko ditu:

- Kudeaketa-zentroa
- Eskaintza-mota: Lehen Aukera 2020 pizgarri-programarekin
- Hautagaitza-mota: Bidalitakoak
- Eta lupan "bilatu" sakatu behar da 

Horrela, zentro laguntzaile horrek erregistratutako kontratatuen kopurua lortzen da, eta kopuru hori **80** zenbakiaz biderkatu beharko da, eta emaitza III. eranskinetako 3. puntuan jarri.

Erakunde laguntzaileak kudeaketa- eta erregistro-lanak egin baldin baditu, bi eragiketarik modu independentean egin eta lortutako emaitzak batuko ditu.

Deialdi honen babesean diru-laguntza jaso duten kontratuekin bukatu diren 20 eskaintza baino gehiago kudeatu baditu zentroak, % 10eko gehikuntza aplikatuko da.

Eskaintzari kontratuak komunikatzeko erregistroa betetzeko prozesuaren bidez lotutako kontratazioak besterik ezin dira diruz lagundu, kontratua komunikatzeko prozesuan **kontratu horri dagokion eskaintzaren erreferentzia adierazi beharko baitu enpresak**. Hortaz, batuta azalduko dira erregistratutako kontratatu-kopuruaren zutabeak.

POSTA ELEKTRONIKOAK ETA HARREMANETARAKO TELEFONOAK

ESKANTZAK ETA TRANTSIZIOA KUDEAKETA EGITEKO ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN BAIMENAK.

Laneratzeko Zerbitzua-Lanbide Zerbitzu Zentralak. Vitoria-Gasteiz:

Harremanetarako e-maila: laneratze@lanbide.eus.

Tfnoa.: 945.181.330

ENPRESA ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEENTZAKO DIRU-LAGUNTZEN ESKAERAK.

Enplegua Sustatzeko Zerbitzua- Lanbide Zerbitzu Zentralak. Vitoria-Gasteiz:

Harremanetarako e-maila: lehenaukera@lanbide.eus

Tfnoa.: 945 181.327 // 945 181.338 // 945 181.326